

Gure balio proposamena, 0-12 urte bitarteko haurrentzako musikoterapia zentroa egitea da. Adin tarte horretan izaten delako detektagarriagoa TDAH, mobilizazio arazo edo hizkuntzarekin arazoak haurretan.

Musikoterapia terapia osagarria da, eta ez farmakologikoa, eta musika entzutean edo musika-tresnak erabiltzean oinarritutako teknikak erabiltzen dira pertsonarengan aldaketak sustatzeko.

Ospitaleen eremuan, ebidentzia zientifikoa dago terapia honek lagun dezakeela gaixotasunari lotutako minaren eta antsietatearen pertzepzioa murrizten, erlaxazioa sustatzen eta pazienteen eta laguntzaileen laguntza psikologiko gisa funtzionatzen.

Minbizia zuten 42 hurrek musikoterapia jaso zuten, guztira 372 saio eginez. Gaixo onkologikoen kasuan, terapia osagarri hori baliagarria izan daiteke gaixotasunari lotutako antsietatea murrizteko, emozioen kontaktua eta adierazpena sustatzeko, norberaren nortasun-sentimendua indartzeko eta, azken batean, pazientearen ongizatea sustatzeko ospitaleratzeetan.

Guzti horretaz gain, ondorioztatuta dago, musikoterapiak autismoa edo mobilizazio arazoak dituzten haurretan eta hezkuntzan lagundu dezakeela, adibidez, hizkuntzak barneratzeko orduan.

Artikulu hauetan egiaztatu daiteke aurretik aipatutako:

[Cochrane Library-ko artikulua](#)

[Grupo Edebé-ko artikulua](#)

[Sunrise Medicaletako artikulua](#)

[Hospital Son Espases-ko artikulua](#)

Durangon kokatuko gara, bertan ez baitago, musikoterapia zentrorik. Musikaterapia zentrua Durangaldeko biztanleriak behar duen zerbitzu bat dela uste dugu haurren hizkuntza-garapenean, gizarte-trebetasunetan, arreta eta memorian, eta emozioen kudeaketan laguntzen baitugu. Teknologiatik urruntzeko baliabideak eskainiko ditugu, ingurune seguru eta estimulagarri batean komunikatzeko eta ikasteko espazioak sortuz.

Gure zentruaren balioak hurrengoak dira:

1. Komunikazio eta hizkuntza estimulatzea. Musika, soinua eta erritmoa motibatzaileak dira komunikatzeko, hizkuntza eskuratzeko, hobetzeko eta barneratzeko.
2. Sozializazioa bultzatu. Pertsonen arteko eta taldeko loturak hobetzen ahalbidetzen du.
3. Arreta landu eta estimatu. Gertatzen eta entzuten ari denari arreta jartzen lagundu egiten die, baita teknologiatik urruntzeko lagungarria da.
4. Erantzun emozionala ahalbidetu. Hitzik gabeko komunikazioaren bidez komunikatzeko aukerak zabaltzea ahalbidetzen digu pertsonari.
5. Sormena ahalbidetzea. Emozioak adierazteko aukera eman musikaren bidez.
6. Arreta eta memoria indartzea. Arlo sozio-kognitiboa, epe laburreko eta luzeko memoria eta arreta iraunkorra eta zatitua landuko dituzte.